

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**52/2020 Foru Agindua, otsailaren 18koa, zeinaren bidez Arabako Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroan inskribatzen baita Gasteizko Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko Elejalde 4 sektoreko konpentsazio batzordean egindako aldaketa, hots, zuzendaritza batzordeko kide bat aldatzea**

Lehenengoa. Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorreko 2020ko urtarrilaren 27ko sarerra data duen idazki baten bidez, Gasteizko Udalak bidali du Gasteizko Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko Elejalde 4 sektoreko konpentsazio batzordeko idazkariak egindako ziurtagiria, zuzendaritza batzordeko karguak berriro direla jakinarazteko, Arabako Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroan inskriba dadin.

Bigarrena. Herrilan eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren urriaren 11ko 865/2005 Foru Aginduaren bidez inskribatu zen Elejalde 4 sektoreko konpentsazio batzordea Hirigintza Erakunde Laguntzaileen Arabako Erregistroan.

#### OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Hirigintza Kudeatzeko Arautegia onetsi zuen abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretuaren 164. artikuluan xedatzen da ezen, konpentsazio batzordeetan gertatzen diren gorabeherak, hala nola zuzendaritza organorako izendapenen aldaketak, hirigintza entitate laguntzaileen erregistroari jakinaraziko zaizkiola, diharduen administrazioaren bitartez.

Gasteizko Udalak egindako jakinarazpenari eransten zaio 2019ko abenduaren 17an egindako egiaztagiria, zeinak jasotzen baitu Gasteizko Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko Elejalde 4 sektoreko konpentsazio batzordearen batzar orokorrak 2019ko azaroaren 28ko bilkuran hartutako erabakia. Bilkura horretako gai zerrendaren lehenengo puntua zen zuzendaritza batzordeko kideak aldatzea, eta erabaki horren bidez jakinarazi da Iñaki Díez Unzuetak kargua utzi duela eta haren ordez Jorge Ozcáriz Salazar izendatu dela.

Bigarrena. Aplikagarria da Arabako Lurralde Historikoko Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroa sortu eta arautzen duen Diputatuen Kontseiluaren irailaren 20ko 56/2011 Foru Dekretuan aurreikusitakoa.

Hirugarrena. Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuak txosten arrazoitua aurkeztu du, eta jakinarazitako aldaketa erregistroan inskribatzea proposatu du.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Agintzea Arabako Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroan inskriba dadila Gasteizko Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko Elejalde 4 sektoreko konpentsazio batzordean izandako aldaketa, hots, zuzendaritza batzordeko kide bat aldatzea: Iñaki Díez Unzuetak kargua utzi du eta haren ordez Jorge Ozcáriz Salazar izendatu da.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2020ko otsailaren 18a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*  
JOSEAN GALERA CARRILLO